



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2019KO MARTXOAREN 4KO BILERAREN AKTA.

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohikoa.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2019.03.04.
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
Tokia: Udaletxeko areto nagusia.

Bertaratuak:
Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Jose Javier Mitxelena Ordoki jn.
Juan Maria Gonzalez Burguete jn.
Igor Ugalde Salazar jn., 3. puntuan sartu da.
Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:
Mentxu Peña Lizarazu and.

Idazkaria:
M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:
1.-Azkeneko akten onespena.
2.-Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa: hasierako onespena.
3.-NUKF: Nafarroako Garapen Lamkidetzarako Tokiko Funtsean Parte hartzeko proposamena.
4.- Alkatearen ebazpenak.
5.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.
Ikusirik 2019ko otsailaren 4an egindako bileraren akta, aho batez, ONARTU DUTE.
Ikusirik 2019ko otsailaren 14an egindako bileraren akta, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA.

Gai hau mahai gainean uzten da hobeto aztertu arte.

Igor Ugalde Salazar jauna sartu da bilera aretora.

3.-NUKF:NAFARROAKO GARAPEN LANKIDETZARAKO TOKIKO FUNTSEAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA.

Ikusirik Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak sortutako Garapenerako Nafarroako tokian tokiko Lankidetzeta Fondoan parte hartzeko gonbidapena, 2019ko proiektuetan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Udal honek 100,00 euroko laguntza ematea aipatutako fondoarentzat.
- 2) Akordio hau Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari jakinaraztea.

4.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bilera geroztik emandako ebazpenen berri eman du: 2019ko 14. ebazpenetik 26. ebazpena arte.

5.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

6.- MAGDALENA ERRANDONEA UNSAIN ANDREA: OIHAN APROBETXAMENDUA ESKAERA.

Ikusirik Magdalena Errandonea Unsain andreak aurkeztutako eskaera, Osinaldeko Borda alderdian dauden zuhaitzen (pinu insignis) aprobetxamendua egiteko (matarrasa), 2. poligonoko 209. lur zatian.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Magdalena Errandonea Unsain andreaki eskatutako oihan aprobetxamendua eskaerei aldeko txostena ematea, aprobetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.
- 4) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.
- 5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

7.-EMAKUMEEN BARATZEAN JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA.

2019ko otsailaren 12an argitaratu da Nafarroako Aldizkari Ofizialean Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak emandako 3E/2019 Foru



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

Agindua, memorian, biktimen, giza eskubideen, bakerako hezkuntzaren, bizidetzaren eta kultur dibertsitatearen arloko jarduerak egiteko deialdia onesten duena, 2019. urtean.

Ikusirik Udal honek 2018. urtean egindako emakumeen baratzea.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Diru laguntza eskaera egitea baratzea horretan hainbat jarduerak egiteko.
- 2) Diruz laguntzeko eskatzen den inbertsioa haxe dela adieraztea: 9.306,512 euro, BEZ barne.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo da eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena.

